

Kostuen egitura:

Gasolina: Autobusen baten depositoa, 250 litrokoa da . Litro hauek 2835 kilometroei dagokie. Autobusaren deposito guztia betetzeko, 378 euro behar dira, hau da, 756 euro bi busen artean. Zazpi bidai egiterakoan, guztira 5292 euro izango dira.

Alojamendua: Bidai bakoitzeko alojamenduaren kostua 10.500 eurokoa izango da, urtean 7 bidai egingo ditugunez, prezioa bider zazpi egin dugu.

Monitoreak: Bidai bakoitzeko 4 monitore kontratatuko ditugu, hau da, autobus bakoitzeko bi monitore, monitoreen soldata 1200 euro. Urtean 7 bidai egingo ditugunez, prezioa bider zazpi egin dugu. Monitoreak kontratatu ahal izateko, 4 hizkuntza baino gehiagoko curriculumak izan behar dute, eta gai izan behar dira konplikazio fisikoak dituzten pertsonetaz arduratzeko.

Merchandising: Sudaderak 22eurotara erosiko ditugu eta poltsak 0,30 eurotara; bakoitzaren 94 unitate ekoiztuko ditugu bidai bakoitzeko. Urtean 7 bidai egingo ditugunez, prezioa bider zazpi egin dugu.

Erantzunkizun zibileko aseguruua: Bidai bakoitzeko aseguruua 23.500 eurokoa izango da, urtean 7 bidai egingo ditugunez, prezioa bider zazpi egin dugu. Bidaiariak jasaten dituzten gorputz-lesioak estaltzen ditu, talka, iraulketa, irismena, bidetik edo galtzadatik irtetea, haustura, eztanda, sutea, erreakzioa, kanpoko kolpea eta ibilgailuari eragiten dion beste edozein matxura edo anormaltasun dela eta.

Ekipo informatikoa: Hasieran ez da beharrezkoa lehen eskuko materiala izatea, beraz bigarren eskuko materiala erosiko dugu. Ordenagailuaren 225 euro gehi mugikorren 75 euro, hau da, 300 eurokoa izango da.

Ekintzak: Hainbat ekintza egingo ditugu bidaietan zehar, baina, dena ordaindu behar izango da. Pertsona bakoitzaren museoaren sarrera, 24 eurokoa izango da, beraz, bidai baten prezioa bider 94 pertsona egitean, 2256 eurokoa izango da. Orduan, zazpi bidaietan guztizko prezioa, 15792 eurokoa izango da.

Horniketa: Lehen esan dugun bezela, Makro handizkariari erosiko dizkiogu hornikuntzak. Bidai batean, 300 euroko hornikuntzak erosiko ditugu eta zazpi bidaietan hornikuntzak 2100 eurokoa da.

Autobusaren alokairua: Bidai batean alokairuaren prezioa 8000 eurokoa da, hau da, autobus bakoitzeko 4000 euro; urtean 7 bidai egingo ditugunez, prezioa bider zazpi egin dugu.

Ur Botilak: Bidai bakoitzeko 700 ur botila erosiko ditugu, hau da, 350 botila autobus bakoitzeko, urtean 7 bidai egingo ditugunez, prezioa bider zazpi egin dugu. Horretarako, Makro handizkariari erosiko diogu prezio baxuago batean erosteko ahal izateko.

	KOSTU FINKOAK	KOSTU ALDAKORRAK	KOSTU TOTALA
Gasolina	5292€	—	5.292€
Alojamendua	73500€	—	73.500€
Monitoreak	770400€	—	77.400€
Merchandising	94x22x7=14476 14673,4€	—	14673,4€
Erantzunkizun zibileko aseguria	164.500€	—	164.500€
Ekipo informatikoa	600€	—	600€
Ekintzak(Museoa)	15792€	—	15792€
Horniketa	—	2100€	2100€
Autobusaren alokairua	56.000€	—	56.000€
Ur botilak	136,5x 7= 955,5€	—	955,5€
Guztira			410.812,9€

EMAITZA EKONOMIKOA

DS-KT= irabaziak	(592200+5066,6)-41 0.812,9=€	186.453,7€
------------------	---------------------------------	------------

Bidaian Zu, enpresaren emaitza ekonomikoa kalkulatzeko kostu totalak eta diru sarrerak erabili ditugu.

Gure lehen diru sarreretako bat Merchandisinga izan da eta 5066,6 euroko etekinak atera zaizkigu. Bigarrena, bezeroek bidaiengatik ordaindu dutena izango da. Bezero bakoitzaren

bidaiaren prezioa 900 eurokoa da. Hortik, 186.4 euro lortu ditugu. Orduan, emaitza ekonomikoa kalkulatzeko diru sarreren eta kostu totalen arteko kenketa egin dugu. Bertan, 186.453,7 euroko irabaziak atera zaizkigu. Beraz inbertsio ona egin dugula ondorioztatu dugu.